



#### 4 BERTSOLARITZA

### Udaberriko bertso saioa gaur Manuel Lekuonan

22:00etan hasiko da bertso saioa eta aurtengoan literatura du hizpide. Ohi bezala, berezia izango da bertso saio hau, herriko 11 idazleren testuak izango dira Maialen Lujanbio, Andoni Egaña eta Ane Labakaren gidari. Idazleetako batzuk bertan irakurriko dituzte euren lanak eta beste batzuen berriz, bideo bidez izango da. Sarrerak 5,50 eurotan eskuratu daitezke oraindik.



#### 5 UDALA

### Hauteskuendek osatutako udalbatzarra

Igandeko emaitzei atzerriko bozkek gehitzea falta zen eta hau eginda, ez da aldatu udalbatzarraren osaketa. EAJ-PNV hiru bozkara gertatu da hirugarren zinegotzia eskuratzeko eta aldi berean PPK lortutako bakarra galtzeko. Bost alderdiek aurpegi berriekin osatu zituzten zerrendak eta hauek izango dira nagusi datorren legegintzaldian. Horretaz gain, sekzioka alderdi bakoitzak jasotako emaitzak jaso dira.

## Dantzaz beteriko asteburua

Erketzek I. Dantzari Eguna eta XXVII. Dantzari Txiki Eguna antolatu ditu



Erketz Euskal Dantzari Taldeko kideak astearteko aurkezpenean, bi egun hauetan parte hartu eta gozatzeko gonbidapena luzatzen diete herritarrei.

Erketz Euskal Dantzari taldeak eta Lasarte-Oriako Udaleko kultura sailak, Saustatxo eta Udaberri elkarte gastronomikoen laguntzarekin, dantzari eskeinitako asteburua antolatu dute maiatzaren 30 eta 31erako. Bihar, hilaren 30ean, Dantzari Eguna ospatuko dute lehen aldiz eta igandean, hilaren 31n berriz, Dantzari Txiki Eguna.

I. Dantzari Eguna 2018an ospatuko den ERKETZ E.D.T-ren 50. urteurrenaren antolakuntzaren hasiera izango da. Urrezko Ezteiak prestatzen hasi dira taldeko kideak asteburu honetako ekintzekin.

Biharko egitarauan, Añorgako Arkaitz eta Hernaniko Ttarla dantza taldeek hartuko dute parte, Lasarte-Oriako Erketz E.D.T-rekin batera. Programari hasiera desfileak emango dio 17:00etan eta Zumaburu Eskolan taldeak duen lokaletik Okendorainoko

bidea egingo dute denek. Ibilbidean zehar bi geldialdi egingo dituzte eta hiru taldeek euren dantzen aurrerapen bat eskainiko dute. Lehenik, Zumaburu zaharren egoitzaren parean hiru taldeek bost minutuko dantza ikusizuna egingo dute. Desfileak Kale Nagusian barrena jarraituko du eta zentroko autobus geltokiaren aurrean berriz ere bigarren geldialdi bat egingo dute. Hipodromo etorbidetik Okendo plazara abiatu eta bertan emango zaio emanaldi nagusiari hasiera.

18:00etan hasiko da saioa Okendo plazan eta eguraldi txarra eginez gero, desfilea bertan behera utzi eta emanaldia Loidibarrengo frontoian ospatuko da ordu berean.

Talde bakoitzeko bikote batek agurra eta ezpata txikia batera dantzatuko dute ikusizunaren irekiera moduan. Jarraian, talde bakoitzak 20 minutu izango ditu prestaturik ekarritako emanaldia egiteko. Okendo plazan eserlekuak jarriko ditu antolakuntzak eta iazko arrakasta berdintzea espero dute ordu eta erdi inguru iraungo duen emanaldian.

#### Dantzari Txiki Eguna

Maiatzaren 31n, igandean, XXVII. Dantzari Txiki Eguna ospatuko dute Santurtziko Zugaitza, Falcesko Makaia, Oretako Ereintza, Andoain-

go Urki eta Lasarte-Oriako Kukuka eta Erketz Dantza Eskola taldeen parte-hartzearekin.

10:30ean talde guztiei harrera egingo zaie Isla plazan eta 11:00etatik aurrera herriko auzo ezberdinetan emanaldiak egingo dituzte. 13:30etan gaztetxoek Udaberri eta Saustatxo elkarteetan bazkalduko dute eta begira-leek berriz, Arrieskalletan. Arratsaldean, 16:45ak inguruan, parte-hartzaileak Okendon bildu eta desfilea hasiko dute Kale Nagusia, Tajamar, Hipodromo etorbidea eta Geltoki Kalean barrena, 17:00etan Okendo plazan Dantzari Txiki eguneko emanaldi nagusia hasi aurretik.


Antolakuntzak jakinarazi du euria eginez gero, Michelin burutuko dituztela ekin-tza guztiak.

USURBILGO  
LANBIDE  
ESKOLA

IEFPS USURBIL GLHBI

AURREMATRIKULA Maiatzaren 25etik Ekainaren 5era

Goi-mallako  
Erdi-mailako  
HEZIKETA  
ZIKLOAK



Mekanika



Elektrizitatea



Administrazioa



Mantenimendua

Energia eta ura

Etarte bidea 9 (Zubieta) 20170 USURBIL - Tel.: 943 364 600 - e-mail: eskola@lhusurbil.com



Neure kabuz



Gorka Lasa

Tortura

Eusko Jaurlaritzak 1960 eta 2003 artean Euskadin izandako tortura kasuen ikerketa agindu zion Paco Etxeberria auzitegi medikuari, eta, ikerketaren lehen hilabeteetan 3.587 salaketaren berri eman dute. Azken 55 urteetan poliziaren esku torturak edo tratu txarrak jasan eta salatu dituzten euskal herritarren salaketak jasotzen dira.

Kalte larriak eragiten dizkio torturak torturatuari. Bai fisikoak eta bai psikikoak. Ilea gal dezake, nortasuna, edo arnasa, une baterako zein betirako.

Gainera, ondorio larriak eragiten ditu torturak, agerikoak ez direnak, ezkutukoak, sakonagoak direnak askoz.

Baina kalterik handiena, ordea, sistemari eragiten dio torturak. Torturarentzat ate, leiho edo zirrikituren bat zabalik uzten duen sistemari, alegia. Estatuaren kontrolpean dagoena omen da onartzeko moduko bortxakeria bakarra. Tortura, ordea, kontrol guztietatik at dago, ekintza krudela, koldarra eta basatia.

Bere burua demokratikotzat duen estatu batek egin dezakeen guztia eta gehiago egin beharko luke bere lurraldean, torturatzen denik susmatzea ere ezinezkoa izan dadin.

Bake eta bizikidetzaren planaren barnean iragana argitu nahi da, pasarte ilun eta lausoak baiditu gure herriaren iraganak. Baina euskal presoek beraien aitortza eta damua eskatzen zaien gisa, torturatuak eta borroeroek ere onartu dezatela berea.

Zenbat jipoi, poltsa eta elektrodo demokrazia hitzarekin mozkortzen direnen eskuetatik, inongo ondorio politiko eta judicialik gabe.

Zorion agurrak



Jare

Zorionak sorgina! Jada bi urte! Ilargiraino ta buelta maite zaitugu! Muxu potoloak Malen, Udane, aita eta amaren partetik.



Enaut

Zorionak eta ondo pasa zure 11. urtebetzean, Oier, aiton-amonak eta familien partetik.




Idoia

Zorionak Idoia, oso ondo pasa zure egunean!!! Muxu haundi bat zure lagunaren partez.



Oinatz

Urte askotarako pottoko! Muxu haundi bat etxeko guztien partez.



Hugo

ZORIONAK BIHOTZA!! 2 Urte zurekin barre egiten! Muxutxoak Ainara, Aita eta Amaren partetik!



Ane

Zorionak gure etxeko txapeldunari! Dagoeneko 11 urte! Gurasoak, Xabier eta Josu



Ekhi

Zorionak Goxoki, muxu potola bat etxekoaren partez!!

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.eus web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Higiezinaren Eskaintza

• Salou. Apartamentua alokatzen da 4-6 pertsonentzako. Berritua eta aire egokituarekin. Erdialdean dago eta hondartza gertu du. Bi igerileku erabilgarri. Alokairua 350 eurotik gora astea. 616 14 81 68.

Lan-eskaria

• Emakumea eskaintzen da etxeak garbitu, zaintza egin edo sukaldari laguntzaile lanak egiteko. Paperak eta erreferentziak ditu. 648 90 67 82.  
• Lan bila nabil. Zaharrak edo umeak zaintzen. Interna edo externa moduan. 645 78 72 72.  
• Esperientzia eta erreferentziak dituen

emakumea eskaintzen da garbiketa lanak, ume edota nagusien zaintzan lan egiteko. 663 99 05 52

• Etxeko lanak, pertsona nagusiak edo umeak zaintzen interna edo externa lan bila. 600 33 40 21.

Lan-eskaintza

• Ile-apaintzaile bat behar dut lan egiteko Lasarte-Orian. 615 781 116. Maite.

Bestelakoak

• Pisu txikia, baju bat ala egongela bat alokatu nahi dut Lasarte-Orian. Ikaslea naiz. 650 50 19 10.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Liher Suarez Herrero, maiatzaren 25ean.
- Hegoi Pazo Azkarate, maiatzaren 22an.
- Ani Iriondo Sanchez, maiatzaren 22an.
- Laia Rodriguez Herrero, maiatzaren 20an.



Heriotzak

- Avelina Cobo Lavin, maiatzaren 21ean, 91 urte zituela.
- Pepita Ikutza Balerdi, maiatzaren 21ean, 85 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 29	Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Larunbata, 30	De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Igandea, 31	De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Astelehena, 01	De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Asteartea, 02	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Asteazkena, 03	Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Osteguna, 04	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Echeveste Elozegi, Elkano 9  
Hernani, Tel.: 943 552087

Udalaren telefonoak


Erregistroa	943 371629
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal eskualtegia	943 361621
Munnteri AEK	943 372863

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
943 366 858/943 371 448  
G-20407557  
Legezko gordailua:  
SS513/93  
ISSN: 1134-0053  
Inprimategia  
Zeroa Multimedia, S.A.  
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidar Azurmendi, Nerea Eizaguirre, Jon Altuna E.  
txintxarri@txintxarri.info  
Publizitatea eta administrazioa:  
Arantza Artola  
publizitatea@ttakun.com  
administrazioa@ttakun.com  
Laguntzaileak:  
Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maidar Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Pako Aizpitarte, Edu Galardi  
Informatikoa:  
Xabier Amadoz

## HEZKUNTZA

## Ikastetxeak Legebiltzarrean

## Hezkuntza batzordera joan ziren Zaballosek sustatuta



Bi ikastetxetako ordezkariak Hezkuntza Batzordean euren azalpenak eman zituzten.

**Legebiltzarrean izan ziren asteazkenean Burunzpe, Sasoeta-Zumaburu eskolako guraso elkarteko kideak eta Landaberriko zuzendari eta guraso elkartekoak. Jesus Zaballos PSE-EEko parlamentariak Burunzperi egindako eskaerari erantzunez.**

## TXINTXARRI

Jesus Zaballos PSE-EEko parlamentariaren eskaera bati erantzunez joan zen Burunzpe Legebiltzarreko hezkuntza batzordera. Zaballosek esan bezala, "haur etorkinen integrazio arazoaren adibide gisa". Burunzpekoek euren eskolan integrazioa gauzatzeko egiten ari diren lanke-ta azaltzeaz gain, aukera baliatu zuten hezkuntza sailari hainbat eskaera egiteko. Landaberrikoek berriz, euren irizpideen legezketasuna zalantzan jartzen zela ulertuta, hauen legaltasuna eta egokitasuna defendatzera joan ziren.

Burunzpeko gurasoek eskatu zuten Euskal Eskola publikoaren legearen artikulua zorrotz betearaztea, Lasarte-Orian dagoen eskola egoera ez ohikoa arintzeko, hezkuntza sailari presazko trantsizio neurriak eskatu zizkion eta egungo giza eta hizkuntza beharretara egokitu den hezkuntza sistema

aztertu eta berritzeko legebiltzar batzorde zehatza sortzeko eskatu zuten.

Honen baitan, onarpen irizpide ez baztertzailak, herri berdineko zentroetan epez kanpoko sarrera orekatuak, euskararen ikaste egokia bermatzea baldintza berdinetan eta baliabide espezializatuak, (HIPI) teknologia.

Burunzpeko lehendakariak aniztasunaren lanketarako eskolan zein herrian egin diren ekimenak azaldu zituen. Azpimarratuz, aniztasuna aberastasuna dela baina horren lanketa denen eskuetan dagoela, baita hezkuntza sailaren eskuetan ere. Izan ere, euren eskolan egiten dena, batez ere guraso elkartetik sustatzen ari dena da.

**Landaberri**

Landaberriko kideak ere izan ziren hezkuntza batzordean. Eskolan dagoen matrikulazio irizpideak, aplikatzen den baremazioaren legezketasuna defendatzera joan ziren. Izan ere, eskolan ikasle ohien

seme-alabei 2 puntu gehiago ematea zalantzan jarri da.

Azaldu nahi izan zuten euren eskolan ez direla etorkinak baztertzeko eta publiko egin diren zenbait datu ere ez direla guztiz fidagarriak, "eguneratu gabeko datuak direlako". Eskola irekia dela esan zuten Landaberriko ordezkariak. 2008. urtea arte ez zen baremazioa aplikatu behar izan nahikoa plaza zeudelako eskaerari erantzuteko. Urte horretan eskaerak handitu eta hezkuntzak finkatutako irizpideak aplikatzen hasi zen.

Hala ere, % portzentai altu batean Lasarte-Oriako familiek aukeratzen duten eskolan daude egun.

Zaballosek esan zuten erkidegoan dagoen arazoaren adibide bezala gonbidatu zituela Burunzpekoak, "ume etorkinen integrazio arazo bat dago Euskadin eta hezkuntza sailak irtenbidea eman behar dio. Ez zehazki Landaberri aplikatzen diren irizpideen inguruan hitz egiteko".

Cristina Uriartek esan zuten erkidegoan beste 200 eskola inguruk aplikatzen dituztela horrelako irizpideak. Sailburuak asmoa azaldu zuten bi eskolen bateratzea DBHn egitea.

## EUSKARA

## Udan euskarazko azterketak prestatzeko aukera Udal euskaltegian

Udal Euskaltegiak 1., 2. eta 3. mailako azterketak prestatzeko ikastaro trinkoa antolatu du uztaileko eta matrikulazioa ekainaren 1ean irekiko du. Ikastaroa uztailearen 1etik 28ra eskainiko litzateke eta klaseak goizez izango lirateke, 9:30etik 12:30era. Azterketa prestatu nahiez gero, 97,20 euro ordaindu behar dira. Hala ere, diru laguntzak badaude, baldintzak betez gero. Matrikula epea ekainaren 1etik 15era izango da eta euskaltegi bulegoan egingo da, 08:30etik 19:00etara.

Informazio gehiagorako, 943 36 16 21 telefonora deitu edo [euskaltegia@lasarte-oria.eus](mailto:euskaltegia@lasarte-oria.eus) helbidera mezua bidali behar da.

## JAIK

## Sorgin Dantzako entseguak

San Pedro jaietako ekitaldi jendetsuenetakoa izaten da Oriatik abiatu eta herri guztia zeharkatzen duen Sorgin dantza. Sorgin dantzako entseguak ekainean hasiko dira eta astearte eta ostegunetan 20:00etatik aurrera izango dira. Horrela entsegu egunak izango dira, ekainak 2, 4, 9, 11, 16 eta 18.

Ekainaren 23an, asteartean, San Joan bezpera dela eta, Landaberri ikastetxeko Garaikoetxeako eraikinean egingo litzateke azken saioa beharra ikustekotan eta azken ostegunean hilak 25 ez da entsegurik egingo Sorgin Jaiak hasten direlako.

Eguraldi ona egiten badu, Okendo plazan egingo egingo entseguak eta bestela, Landaberri ikastetxeko Garaikoetxeako eraikinean.

## GERTAERA

## Geltokin su hartu zuen kotxe batek

Atzo 11:45ak inguruan auto batek su hartu zuen Geltoki Kalean. Kotxean zihuan gizona ez zen konturatu autoaren behekaldeetik kea irteten ari zela eta bi herritarrek atera zuten kotxetik. Handik pixka batera, eztanda handi bat entzun eta motorrak su hartu zuen. Gizona onik atera zen. Berehala bertaratu zen Udaltzaingoa, eta hainbat herritarren laguntzarekin, mangera batekin sua kontrolatzea lortu zuten suhiltzaileak iritsi bitartean. Inguruko denda eta tabernetako lagunek su-itxalgailuak atera eta ahal izan zuten guztian lagundu zuten.



## JAIK

## Sorgin Jaietako arropa berria

Sorgin Jaietako arropa berria izango da salgai Zabaletako festetan, kamiseta eta sudaderak atera dira eta herritarrei hauek eskuratzeko gonbita luzatzen zaie.

Horretaz gain datozen asteetan ostiralero 18:30ean Xirimirin bilerak egingo dira egitarauko ekintzak prestatzeko. Honakoak irekiak dira eta aportazioak egin edota parte hartzeko gogoia duen orok aukera du parte hartzeko.

## Atsobakarreko langileak protestan

Asteazkenean Atsobakarreko langileek euren protesta erdigunera eramane zuten. Udaletxe zaharraren aurrean jarri ziren Clece enpresari hitzarmena sinatzeko eskatuz.

Atsobakar zahar egoitzako langileen protesta erdigunetan entzun zen asteazkenean San Pedro elizaren aurrean jarrita, ordu erdiz egon ziren elkarretaratzea egiten.

Egun egoitza kudeatzen duen enpresari, Cleceri lan hitzarmena sinatzeko eskaera egiten zioten berriro ere langileek.

Horrela jarraitzekotan, astelehenean aurrera greba mugagabea egitea ere ez dute baztertzeko komitetik adierazi duten moduan, izan ere hori izan da ELA sindikatuak egin duen proposamenaren egoerari irtenbidea bilatu nahian. UGT eta CCOO sindikatuen babesarekin ere greban dago egoitza.

Hiru aste daramatzate lan uzteak goiz eta arratsaldean egiten zerbitzu minimoak errespetatuz. Aurreko astean herrian zehar manifestazioa ere egin zuten. Euren egoera zein den ezagutzera emateko.

**Aldundiarekin akordioa**

Foru Aldundiak beregain hartu behar zuen herriko egoitza Gipuzkoako beste hainbat bezala, hala ere, "enpresak Aldunditik jaso beharreko dirua jaso arte ez omen du hitzarmenik ez ezer sinatuko langileekin" langileek adierazi zuten moduan. Hauek lan hitzarmen duina eskatzen dute.

Hau dela eta, protestekin jarraituko dute euren aldarriari erantzuna eman arte. Tartean, udalak, enpresa eta Aldundiaren arteko elkarrizketetan esku hartzea eskatzen dute.



Asteazkeneko elkarretaratzean hainbat egoiliarren babesa ere izan zuten langileek.



# Udaberriko bertso saioa gaur

22:00etan hasiko da eta saio berezia espero da urtero bezala

'Doinuak lumaz' bertso saioa gaur izango da Manuel Lekuonan bertan izango dira 11 idazleren testuak Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Ane Labakari gaiak jartzen. Herriko bertsolaria Gipuzkoako Txapelketako sailkapenean murgilduta dago eta gaurkoaz gain, igandean izango du txapelketako bigarren saioa.

## TXINTXARRI

Gaur 22:00etan hasiko da Ttakunek antolatutako ohi duen Udaberriko bertso saioa. Aurtengoan, 11 idazlek idatzitako testuak jarriko diete gaia Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Ane Labakari bertsolariak. Udaberriko bertso saioa ez da ohiko bertso saio bat izaten. Hau dela eta, bertsolariak ere lan zaila izaten dute batzuetan.

Ane Labakari da herriko bertsolari bakarra gaur oholztan eta gainera sasoiaren dago, Gipuzkoako txapelketako sailkapenean murgilduta baitago azken asteetan. Hain juxtu, igandean du txapelketako bigarren saioa Zizurkilen 11:30ean. Aurrenekoa irabazi egin zuen.

Gaurkoan Ane Labakari bertso saio polita espero du. "esperimentazioarekin lotutako saioek eta betiko formatik urruntzen direnak beldur pixka bat ere sortzen didate baina gogotsu nago".

Idazleek idatzitakotik abiatuta kantatu beharko dute bertsolariak "beraiek lan ona egingo zuten, ziur, zailagoa izango da ordea beraiek idatzitako horren gainean inprobisatzea. Zailtasun honek badu berarekin, hala ere, erakartzeko gaitasuna" dio Labakari.

### Ezin gaiak aurreikusi

Literatur Txokoarekin ere saio berezia egin zuen Anek, kasu honetan 11 testu izango dira gaia jartzen. Zein gai espero dituen galdetuta, "auskalo,



Ane Labakari igandean Gipuzkoako Txapelketako bigarren sailkapen saioa izango du Zizurkilen.

bertso afari literarioan bezala, ezinezkoa da zein gai jarriko diguten aurreikustea. Denetarikoa gaiak espero ditut, egunerokotasunarekin lotuak eta tartean hausnarketarako bide ematen dutenak ere bai".

Horrelako saio bat prestatzea zaila da, "nik ez dut bereziki prestatzen. Ostegunean bertso-afari bat eta igandean

Gipuzkoako Txapelketako saioa ditut, beraz, niretzat urteroko zita berezia izan ohi den arren, aurtengoan beste saio bat gehiago balitz bezala hartu eta ahalik eta ondoen egiten saiatuko naiz. Benetako prestateta, saio hauen atzean dagoen lantaldeak egiten duena da. Guk joan eta

beraiek bideratutakoarekin kantatzea baino ez dugu egingo. Beraiena da meritua".

Orokorrean, "kartela potentzia dela iruditzen zait, deigarria eta erakargarria. Ez zait iruditzen ostiral gau baterako askoz plan hobirik badagoenik. Horregatik, harrera ona izatea nahi nuke, eta herritarrak gerturatzea".



DBH1 eta 2 mailako gaztetxoek "Edurnezuri eta 7 ipotxak" lanarekin eman zioten hasiera asteari.



Hainbat herrialdeetako artistak bildu zituzten LH5 mailako gazteek Manuel Lekuonako oholztza gainean.



DBH3 mailako gazteek "Aupa Etxebeste" filma oinarritutako lana eskaini zuten atzo.

## Izar gazteez betetako astea

Kukuka Antzerki eta Dantza eskolako 13. astean herriko haur eta gazteek haien dohainak erakutsi dituzte aste honetan Manuel Lekuona kultur etxeko aretoan.

Astelehenean goiz eta arratsaldeko saioan, DBH1 mailako ikasleek izotzaldia urtu zuten "Edurnezuri eta 7 ipotxak" antzezlanarekin.

Goizeko ikasleen saioan aldiz, DBH1 eta 2ko dantza garaikideko saioa ikusteko aukera ere izan zen.

LH5-eko ikasleek antzerki arloan izarrak direla erakutsi zuten asteazkeneko bi emanaldietan "Artisten Herria" eta "Gu ere artistak gara" saioekin.

Atzo berriz, DBH3koen "Aupa Etxebeste" antzerkiaren gozatuko zuten gazteen ikasleek goizean, zein gurasoek arratsaldean ere.

DBH2-4 maila arteko dantza garaikide eta euskal dantza sorkuntza taldeen saioaz ere gozatu ahal izan zuten ikasleek goizean.

### Aste beteko atsedena

Gaur ez da saiorik egongo, baina bihar, 20:00etan, helduen talde baten txanda izango da. Honek "Auzoa" antzezlanaren aurkeztuko du kultur etxeko aretoan.

Saio honekin antzerki eta dantza asteko lehen zatiari amaiera emango zaio.

Ostean, astebeteko etenaldia izango da eta ekainaren 8an berriz hasiko dira saioak. Hauetan besteak beste, Sasota-Zumaburu edo Zubietako haurren lanak ikusi ahalko dira.





Maite Iglesias  
PSE-EE



Agustin Valdivia  
PSE-EE



Lourdes Acevedo  
PSE-EE



Jesus Zaballos  
PSE-EE



Pablo Barrio  
EHBildu



Leire Elizegi  
EHBildu



Gorka Lizarraga  
EHBildu



Kris Bernal  
EHBildu

Estitxu Alkorta  
EAJ



Txus Alonso  
PSE-EE



Beatriz Juez  
PSE-EE



Jose Mari Urdampilleta  
PSE-EE



Alex Saenz  
PP

Jon Antxordoki  
EAJ



Arkaitz Naya  
Lasarte-Oriak Ahal Du



David Ares  
Lasarte-Oriak Ahal Du



Alicia Garcia  
Lasarte-Oriak Ahal Du



# Aurpegi berriez betetako Udalbatza

## PSE-EEK Sasoetan lortu zituen bozka gehien

Udal hauteskundeek zinegotzi berriz betetzen dute Udalbatza. Aurreko legealditik sei kide mantenduko dira, batek bi legealdiko etenaren ostean berriro hartu du kargu eta hamar dira zinegotzi aulkian lehenengoz eseriko direnak. Atzerriko bozkek ez du aldaketarik ekarri alderdiek igandean eskuratutako bozka kopuruan. Ekainaren 13ra arte, itxaron beharko da alkate berria zein den jakiteko.

Argitaratu genuen moduan, PSE-EEK irabazi zituen udal hauteskundeak 3.540 bozkekin. 2.365 bozkei esker EHBildu izan zen bigarren indarra eta Lasarte-Oriak Ahal du hirugarrena izan zen, 1.480 bozkekin. EAJk nahiz eta bozkek irabazi laugarren izan zen 1.428 bozka lortuz eta azkenik, PP 477 eskuratu zituen.

Baina haiek behin behineko datuak dira. Izan ere, atzerriko bozka ez zen igandean kontatzen.

Eta honen arabera, zinegotzi kopurua aldatzeko aukerak zeuden. Hala nola, EAJ-PNV-k hiru bozka behar zituen hirugarren zinegotzia eskuratzeko. Horrela izanez gero, PPK lortutako zinegotzia galduko zukeen.

Asteazkenean bozka kontaketa egin eta zinegotzi banaketan aldaketarik ez dagoela jakitera eman dute erakundeek.

Baina behin-hetik daturik ez du eskaini oraindik. Eskualdeko Hauteskunde-batzordeak bihar arte du bozka kontaketa egin eta igandean egindako kontuak baieztatzen. Bere ebazpena ekainaren 1ean eskainiko du eta hautagaitzetako ordezkari jakitera

emango die. Ekainaren 3an Hauteskunde-batzorde Zentralari bidaliko dio txostena eta honek uztailaren 10etik 18ra du udal-hauteskundeetako behin betiko emaitzak eta barrutien arabekoak BOEn argitaratzeko.

Bestalde, alderdiek igandean hautagaitzetako ordezkari hauteskunderi buruzko erreklamazioak eta kexak aurkeztu ditzakete.

### Udalbatzako kideak

Era honetara, aurpegi berriez osatutako Udalbatza izango da, beraz, legealdi honetan. Hamazazpi zinegotzietatik hamarrentzat lehenengo aldia izango da aulkian eseriko direnak.

Aurreko legealditik sei zinegotzik errepikatzen dute: 3 PSE-EE, 2 EHBildu eta EAJ-PNV 1. PSE-EEKo Urdampilletak berriro hartuko du zinegotzi akta bi legealdiko atsedendiaren ostean.

Gauzak honela, PSE-EEK 7 izango ditu:

- Jesus Zaballos
- Lourdes Acevedo
- Agustin Valdivia
- Maite Iglesias
- Txus Alonso
- Beatriz Juez
- Jose Mari Urdampilleta

Hauetatik aurreko legealdian, Zaballos, Acevedo, Alonso izan ziren oposizioan eta aipatu legez, Urdampilleta 1999-2003 eta 2003-2007 legealdietan izan zen zinegotzi eta beste hiruk kargua hartuko dute lehenengoz

EHBilduk 4:

- Pablo Barrio
- Leire Elizegi
- Gorka Lizarraga
- Kris Bernal

Pablo Barriok alkatea funtzioetan eta Gorka Lizarragak errepikatzen dute zinegotzi postua eta Leire Elizegi eta Kris Bernal dira berriak.

Lasarte-Oriak Ahal du hautesle taldearen izenean Udalbatzarrean lanean izango diren kideak hiru dira:

- Arkaitz Naya
  - David Ares
  - Alicia Garcia
- Hiruentzat lehen aldia da Udalbatzako kide direnak.

EAJ-PNVk bi kide izango ditu korporazioan:

- Estitxu Alkorta
  - Jon Antxordoki
- Batek errepikatzen du Estitxu Alkortak eta Jon Antxordokik aldiz, lehen aldia du.

Lehen legealdia izango da ere Udalbatza mahaia osatuko duen PPKo Alex Saenz gaztearentzat.

Orain, alderdiek elkarriketak eta akordioak egiteko garaia dute. Ekainaren 13ra arte dute orain legealdi berriko udalbatza eratu eta alkate berria aukeratzeko.

Ezustekorik ez bada Jesus Zaballosek eskuratuko du kargua. PSE-EEKo hautagaia, alderdi bozkatuena denez, prest agertu da beste alderdiekin hitz egiteko eta komunikabideei azpimarratu dienez "hau adostasunen legealdia izan daiteke".

### Bozkek sekzioka

Bestalde, asteartean, sekziokako eta mahaikako bozka kopuruak jakitera eman ziren.

Beheko taulan ikusi daitezkeen bozka zuri edo baliogabeen kopurua txikia izan da hauteskunde haueetan.

Honi lotuta gogoratu, aurreko udal hauteskundeekin konparatuta parte hartzea handitu zela. Aurten % 67koa izan zen bozka emaile kopurua, 2011an %64 eta ondorioz, herritarren %32,8a abstentziora jo zuen.

Alderdien bozka kopururari dagokionez, argi ikusten da PSE-EE ia mahai guztietan izan zela nagusi. Mahai gehienetan 100 bozka baino gehiago batu zituen, 1go sekzioan eta Udale-

txeko 6A mahaian izan ezik. Sasoetako 3. sekzioa lortu zituen bozka gehien, bi mahaia batuta 466.

EH Bilduk Sasoetako 1go sekzioan, Kultur Etxeko 4A mahaian, Udaletxeko 6. sekzioan eta Liburutegi Zaharreko 9A eta C mahaian lortu zuen PSE-EE baino bozka gehiago.

Koalizioa abertzalearen kontra Zumaburu ikastetxetako 7. eta 8. sekzioetako kopuruak daude, 50 bozka edo gutxiago.

Lasarte-Oriak Ahal du hautesle taldeak Basaundiko 11B mahaian 105 bozka eskuratu zituen eta beste mahaian 47tik 87ra.

Baina lau mahaian Kultur etxeko 4A eta 5 mahaian eta Zumaburu ikastetxeko 8. sekzioan 40 bozka baino gutxiago lortu zituen.

EAJk 53-83 arteko bozka kopurua mantendu zuen mahai gehienetan, Zumaburuko Ikastetxeko sekzioan eta Sasoetako 2. sekzioan eta 3A mahaian izan ezik haueetan 28tik 36ra doaz bere aldeko bozkek.

Azkenik, PPK Kultur etxeko 5 sekzioko mahaian eta Zumaburuko 7B eta 8A mahaian lortu zituen bere emaitzarik onenak.

## 2015eko TOKI-HAUTESKUNDEAK

2015eko MAIATZAREN 24an

Sekzioa	SASOETA						KULTUR ETXEA			UDALETXEA		ZUMABURU IKASTETXEA				LIBURUTEGI ZAHARRA			UDAL PABILIOIA	BASAUNDI		KULTUR ETXEA	GARAIKOETXEA IKASTETXEA	
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24
Mahaia	A	B	A	B	A	B	A	B	U	A	B	A	B	A	B	A	B	C	U	A	B	U	A	B
Boto emaileak	397	385	364	404	439	427	342	348	397	375	393	301	337	301	309	412	449	440	450	517	483	526	382	363
Zuria	5	6	6	3	6	1	6	5	2	4	4	6	6	2	1	6	5	5	9	2	17	14	7	7
Baliogabea	4	4	4	7	6	6	4	3	0	4	3	3	5	3	9	6	4	5	7	11	2	4	7	4
PP	7	11	23	15	18	24	14	19	42	10	10	19	36	37	27	12	20	20	15	22	16	22	20	18
EAJ-PNV	75	73	30	36	53	36	68	53	79	78	80	36	28	34	35	71	66	79	76	76	64	83	66	53
PSE-EE	82	88	179	200	219	247	105	119	127	93	107	145	179	143	156	100	153	121	175	182	167	187	127	139
EHBildu	173	151	66	66	68	60	106	93	111	137	127	41	36	46	50	160	124	134	90	137	112	135	77	65
L-O Ahal Du	51	52	56	77	69	53	39	56	36	49	62	51	47	36	30	57	77	76	78	87	105	81	78	77



## LABURRAK.-

## Martxan da Lasarte-Oriako XXVII. Squash txapelketaren bigarren fasea

Kinin Calvo, Oswal Cañedo, Aitor Tejero, Iker Cañedo, Xabier Amiano eta Iñaki Garcia Muñoz dira XXVII. Squash txapelketa sozialaren azken txanpara ailegatu diren jokalaria. Denek denen aurka aritu beharko dute eta bi onenek jokatuko dute final handia ekainaren 13an, udal kiroldegian.

Kontsolazio koadroan berriz, gainontzeko jokalaria daude, kanporaketa bidezko sisteman: Javier Serrano - Imanol Olaizola, Eneko Gartzandia - Roger Hidalgo, Joaquin Peña - Gorka Lara, Juanjo Martin - Dani Dávila eta Julen Urruzola.

Finala ekainaren 13an, larunbatean, izango da eta ordutegiari dagokionez, kontsolazio finala eta hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeke partida 16:00etan hasiko dira. Final handia norgehiagoka horien ostean egingo da. Finalak amaitzean irabazleei sariak banatuko zaizkie.

## Eskola kiroleko ikasturte amaierako festa ospatuko dute bihar Michelinen

ESKOLA KIROLAREN  
FESTA

Maiatzak 30, larunbata

Michelingo kiroldegian

**Kirol-hastapena**  
Aurrebenjaminak  
Ginikana erraldoia sorpresek  
Michelingo frontoian  
LH1 eta LH2, 10:00-12:30



**Kirol ezberdinen txapelketa**  
Atletismoa, errugbia, futbola, jokoak...

**Alebinak:** LH5 eta LH6, 10:00-12:30  
Atletismoko pistak

**Benjaminak:** LH3 eta LH4, 10:00-12:30  
Michelingo futbol zelaietan

**Amaieran sorpresak izango dira!**

Lasarte-Oria Kirolak  
Lasarte-Oria Kirolak

Eskola kiroleko arduradunek gogoratzen dute topaketa honetara egitasmoan parte-hartu duten guztiak daudela gonbidatuta, LH1etik hasi eta DBH arteko taldeak hain zuzen.

## Ostadarreko taldeek amaitu dute denboraldia eta 2015/16koa prestatzen hasi dira

Ostadarrek denboraldi amaierako mezuan eskertu nahi izan du jokalaria, entrenatzaile, guraso, jarraitzaile, laguntzaile eta babesle guztien lana 2014/2015 denboraldian emandako babesagatik. Orain, datorrena prestatzen hasiko dira eta horretarako, taldeak osatu behar dituzte pixkanaka.

Futboleko, alebinez astelehen eta asteazkenean egingo dituzte probak 18:00etan Michelinen, infantilek egun beretan 19:00etan. Kadeteek asteartean eta ostegunean entrenatuko dute 18:00etan eta jubenilek berriz, 19:00etan. Infantil neskek ostiralean 18:00etan egingo dute entrenamendua. Azkenik, emakumezko erregionalek astelehen eta asteazkenean entrenatuko dute 20:00etan, gizonezkoek astearte eta ostegunean 20:00etan.

Sare sozialetan ere aktibo daude urdin-beltzak, Twitter berriak: klubarena @ostadarskt, futbolekoa @ostadarfutbola, areto-futbolekoa @ostadarareto eta saskibaloikoa @ostadarsaski dira.

## PALA.-

## Hasi da XXXIV. Santa Ana pala txapelketa herrikoia

Guztira bederatzi bikote arituko dira nor baino nor Loidi-Barrengo frontoian jokatuko den torneoan



Astelehenean hasi zen jokatzen herriko txapelketa entzutetsua eta Santa Ana egunean jokatuko da finala, uztailaren 26an.

**Herriko palisten urteroko hitzordu garrantzitsuenari iritsi da. Hasi da XXXIV. Santa Ana txapelketa Loidi-Barrenen. Bederatzi bikotek uztailaren 26an jokatuko den finalean izateko egingo dute borrokan eta soilik bik lortuko dute helburua.**

## JON ALTUNA EGITEGI

**G**erriko gorri eta urdinak estu lotu, erretxina edo pegapaloa eskutan eman palak izerdiarekin irrist egin ez dezan, eta aste honetan ekin diote XXXIV. Santa Ana Pala Txapelketari. Partidak astelehen eta astearteetan jokatuko dira Loidi-Barrengo frontoian, 18:30etik aurrera.

"Nik uste txapelketa polita aterako dela, lehiatua. Aurtengoan bederatzi bikote gara eta hiru pareja berri daude.

lax baino txapelketa hobe aurreikusten dugu. Beste xarma bat eman nahi izan diogu eta parte-hartzea bi zifretara iristea nahi genuen. Azkenean, ez gara urrun ibili", adierazi du Xenki Astiazaran txapelketako jokalaria eta antolatzaileak, Jon Pagolarekin elkarlanean.

Arauk betikoak dira. Herrikoentzat da txapelketa, 35 tantora jokatuko dira partiduak, 7ko koadrotik aurrera; pilotak hortik atzera botea emanaz gero, pasa izango da.

Loidi-Barrengo pilotalekuan jokatuko dira neurketa guztiak, eguraldia, haizea edo dena delakoa izanda ere, ez baitago inongo eragozpenik.

## Bikoteen zerrenda

Denera bederatzi bikote dira: Benaiz Odriozola - Santi Martin, Pagola - Jesus, Xabier Etxezarreta - Jon Pello Artetxe, Iñigo Arluziaga - Xenki Astiazaran, Gurutz - Josu, Beñat Esnaola - Xabier Arteaga, Potzu - Kamino, Imanol Bardaji - Ander Bardaji eta Josu - Koldo.

"Faboritoak lau direla esango nuke, lehengo urteko finalaurrekoa jokatu genuen laurak hain zuzen. Jon Pello Artetxe eta Xabier Etxezarreta, Xabi Arteaga eta Beñat Esnaola, Santi Martin eta Benaiz Odriozola iazko finalistak eta gure bikotea (Xenki Astiazaran - Iñigo Arluziaga). Hala ere, beti daude sorpresak eta edozer gerta daiteke, adibidez, Bardajitarrak joko onarekin ikusten dituzte", onartu du Astiazaranek.

Hortaz, bederatzi bikoteek elkarren aurka jokatuko dute zortzi partidatan, ligaxka formatuan. Lehengo laurak finalaurrekoetara igaroko dira eta bertan zozketa egiten da zeinek zeinen aurka jokatuko duen erabakitzeke. Final handia uztailaren 26an izango da, Santa Ana egunean.

Iazko txapelaldunak Xenki Astiazaran eta Iñigo Arluziaga izan ziren eta duela bi urte Mikel eta Jon Begiristain anaiak izan ziren txapela jantzi zutenak. Hasi da txapelketa, onenak irabaz dezala.

## KIROL AGENDA.-

## MENDIA

Larunbata 30

Jalgi parean, 6:30ean

Ostadarreko mendi sailak antolatuta, urteroko martxa egingo dute, aurten 10. aldiz. Sokoa - Donostia, kostatik, hamar bat orduko mendi-martxa.

## ARETO-FUTBOLA

Ostirala 29

Herriko txapelketa, play-offak.

Michelingo kirol-gunea, 19:45ean

Indaux - Ilargi

Michelingo kirol-gunea, 20:45ean

Bar Also - Txoko Taberna

Larunbata 30

Michelingo kirol-gunea, 9:15ean

Txindoki - Reformas Lagunak

Michelingo kirol-gunea, 10:15ean

El Punto - Urdaneta HK

Michelingo kirol-gunea, 11:15ean

Insausti - Buenetxea

## TRITLOIA

Larunbata 30

Bilbo, 13:30ean

Javi Lopez Saiatuz taldeko triatletak eta

Maria Mendibek Bilboko Iron Man

Erdia egingo dute. 1,9km igeri, 90km

bizikletan eta 21km korrika denera.

## MENDI-LASTERKETAK

Larunbata 30

Leitza, 8:00etan

Peio Fadrique, Jesus Gomez, Javier Olazagoitia eta Toño Perezek Leitza-Gurutz-Gorriti-Arribe-Gaintza-Irumugarrieta-Albi-Artxueta-Lekunberri-Etxarri-Ireber-Kornietza-Leitza egingo dute, 65km.

## PILOTA

Larunbata 30

Michelingo pilotalekua, 16:30ean

Lasarte-Oria-Zizurkil, herriarteko

Txapelketako final-zortzirenak.

## ATLETISMOA

Igandea 31

Anoetako miniestadioa, 10:00etan

LOKEko atletak Gipuzkoako txapelketako bigarren jardunaldia jokatuko dute, oraingoz taldeka 3. postuan doaz neskek.

## MARATOI ERDIA

Igandea 31

Donostia, 10:00etan

Herriko hainbat atletak Donostiako

Maratoi erdian parte-hartuko dute.

Boulevardetik atera eta Donostiako

erdialdean egingo dute korrika.

## TXIRRINDULARITZA

Larunbata 30

Zegama, 10:30ean

Bazpiko ziklistek XXXI Elkartu

Nahi Sarian hartuko dute parte.

Lasterketak 69 kilometroko luzera

izango du eta Liernia eta Barbaris

igo beharko dituzte.

Igandea 31

Zumaia 9:45ean

Bazpiko ziklistek taldekako

erlojupeko proban parte-hartuko

dute kadete mailan. 18,5 km egin

beharko dituzte.



## Agenda

Larunbata 30, 18:00etan, Okendo plaza



### Euskal dantzez gozatzuz

Erketz EDT-k antolatuta I. Dantzari eguna ospatuko da. Añorgako Arkaitz Dantza taldea eta Hernaniko Ttarla Dantza taldea dira gonbidatuak. Herriko kaleetatik desfilea egingo dute eta geldialdietan haien emanaldien dantzen aurrerapen bat eskainiko dute. Okendo plazara iristean, agurra eta ezpata txikia dantzatuko dute talde bakoitzeko bikote batek. Ostean, hiru taldeen dantzak ikusteko aukera izango da. Eguraldi txarra eginez gero, ez da desfilerik egongo eta Loidi-Barreneko pilotalekuan egingo da emanaldia.

### Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Maiatzan zehar

Atzegi elkarteak erakusketa osatuko du #elkarrion kanpainako selfie-kin. "Elkarrion adimen urritasuna duten pertsonen asko dute emateko" kanpainaren barruan, jendeak bidalitako argazkiekin egindako bilduma izango da ikusgai.

ANTONIO MERCERO ARETOA

Ekainaren 5 a arte

Brancussiko ikasleen margolan eta arte-lanen erakusketa ikusgai.

### Hernani

#### Garagardo azoka

ATSEGINDEGI PLAZA

Osteguna 28-Igandea 31

Hernaniko Errugbi taldeak antolatuta, XII. Garagardo azoka izango da. Ostiralean 80tharrak musika taldea eta igandean ekitaldi berezia eta 500 lagunentzako bazkaria.

### Lasarte-Oria

#### 13. Antzerki eta Dantza astea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata 30, 20:00etan

Helduen taldeak 'Auzoa' lana eskainiko du. Sarrera doakoa.

#### Bertso-saioa

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala 29, 22:00etan

Ttakunek antolatutako Udaberriko saioa izango da. "Doinuak lumaz" da emanaldiaren izena eta honetan bertsoa literaturarekin uztartuko da. 11 idazleren testuetan oinarrituko da bertso saioa eta Ane Labaka, Maialen

Lujanbio eta Andoni Egaña izango dira kantuan. Uxue Loinaz ariko da gai jarzaile lanetan. Musikak ere izango du bere tarte. Sarrera 5,50 euro. Hamarreko bonoa, 45 euro, aurrez erosita.

#### Musika

MENDI KAFE-ROCK

Larunbata 30, 00:00etan

"Blas Picón" eta "The Romanticos"-en kontzertuaz gozatzeko aukera izango da.

AMA BRIGITARREN KOMENTUA

Igandea 31, 11:00etan

ONCE fundazioko "Alaia" abesbatzak kontzertua eskainiko du Vieneta Igleasiasek zuzendua.

### Dantzari txiki eguna

LASARTE-ORIA

Igandea 31, egun osoa

Erketz EDTek antolatuta XXVII Dantzari Txiki eguna egingo da. Santurtziko Zugaitza, Falcesko Makaia, Oretako Ereintza eta Lasarte-Oriako Kukuka antzerki eta dantza eskolako eukal dantza taldea eta Erketz Dantza Eskolako haur eta gaztetxoek partehartuko dute topaketa honetan. Goizean, Isla Plazan bildu eta haur eta gaztetxo taldeek herriko hainbat txokoetan egingo dute dantza; arratsaldean, berriz, herriko erdialdean desfilea egin ostean, Okendon emanaldi nagusia eskainiko dute. Eguraldi txarra eginez gero, Michelingo frontoian izango da emanaldia.

### Kultur arteko azoka

HERRIAN ZEHAH

Ostirala 29-Igandea 31

Hernani Errotzen elkarteak antolatutako kultur arteko azokaz gozatzeko aukera izango da.

### Andoain

#### Argazkialdia 2015

BASTERO KULTURGUNEA

Ekainaren 12ra arte

Argazkialdia 2015-n barruan, Lobo Altuna, Iñigo Royo, Beñat Arregi eta Nagore Legarretaren argazki erakusketa. Tailerak eta ekintza ugari izango dira. Informazio gehiago, [www.argazkialdia.com](http://www.argazkialdia.com).

## Herritarren txokoa

#### Lasartetik Esloveniara!!

Lasarte taldea, aurten ere, udako bidaia prestatzen ari da. Bisitatuko dituen lekuak: Bled, Maribor, Ljubljana, Postjonako kobazuloak, Istria... Interesa duzuenok deitu telefono honetara: 661 41 78 53 Plaza mugatuak.

#### Oriatarren bazkaria

Karmengo Amaren egunean, uztailaren 16an, Oriatarren bazkaria antolatu dute El Jardin jatetxean. Aurten Karmengo Amaren kaparen 75. urteurrena ospatuko dute eta On Ramon Urribetxeberria apai-zari omenaldi txikia egingo zaio urte hauetan egindako zerbitzua-rengatik. Bazkariak gozatu nahi duten herritarrek jatetxean bertan eman behar dute izena. Menua 30 euro dira eta haurrentzako bi menu daude, bata 8 eurokoa eta bestea 12 eurokoa.

#### Santa Ana pintxoa

Aterpeak Santa Ana egunean, uztailak 26, Santa Ana pintxoa egitasmoa antolatu nahi du iaz bezala. Honetan parte hartu nahi duten tabernek harremanetan jarri beharko dute Aterpeako kideekin 637 95 50 30 telefonoan edota [itziarirurzun@hotmail.com](mailto:itziarirurzun@hotmail.com) helbidera mezua bidalita.

## Sarean

### Euskarazko hiztegia aberasteko eta zifrekin jolasteko bost aplikazio

Euskararekin jolastu eta hiztegia aberaseko edo zifrekin jolasteko Hitzmix izeneko bost aplikazio garatu ditu Elhuyarrek tabletetarako:

- HITZMIX Hitz-pasa: Definizioa eta lehen letra emanaz, euskarazko hitza osatu behar duzu. Euskaraimaila ertaina behar da.


- HITZMIX Gurutzatuak: Emanadako letrak baliatuta hitz gurutzatuak sortzea da helburua.

- HITZMIX Letren saltsa: Jokalariak, zortzi letra erabilita, ahalik eta hitzik gehienak eta luzeenak idatzi beharko ditu denbora jakin batean.

- HITZMIX Bortz: bost letrako hitz bat aurkitu behar da. Jokalariak bost letrako hitz bat idatzitakoan, aplikazioak adierazten du aurkitu beharreko hitz horren zenbat letra asmatu dituen jokalariak eta asmatutako zenbat dauden dagokien tokian.

- HITZMIX Zifren saltsa: Esleitutako 6 zenbakiekin, eragiketak egin behar dira (batuketa, kenketa, biderketa edo zatiketa), emandako kopurura ahalik eta gehiena hurbiltzeko.

Joko guztiak ordainpekoak dira, eta Android eta iPad-erako egokituak. Google Playn eta App Storen eskuratu daitezke.



**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:**

Geltoki kalea, 4 943 366858 [txintzarri@txintzarri.info](mailto:txintzarri@txintzarri.info)



# "Aeolia's Park" Wiesbadenen geratzen da

Pilar Soberonen lana iazko udaran kokatu zen Alemaniako hirian beste 9 artisten lanekin

"9 zubi" ekimenean parte hartu zuen iazko udaran Pilar Soberon herriko artistak "Aeolia's Park" eskulturarekin Wiesbadenen. Brontzezko astigar hazia hiriak erosi egin du eta bertan geratuko da parke batean. Soberon oso pozik dago bere lanak izan duen harrerarekin eta funtsezkotzat jotzen du hemengo erakundeek atzerrian lanak erakusteko aukera lagundu eta babestea.

Alemaniako Wiesbaden hiriko Kurparken instalatu da Pilar Soberon herritarraren "Aeolia's Park" brontzezko eskultura. Iaz egon zen lekutik gertu dagoen eremua dela aipatu du artistak.

Brontzean egindako astigar haziaren eskultura da hiriak erositako bi eskulturetako bat.

Izan ere, 2014an Kunstsommer Festival delakoaren baitan, hainbat artisten lanak jarri ziren Donostiarekin senidetuta dagoen hirian.

Guztira bederatzi artisten lanak jarri ziren iazko udaran "9 zubi" izeneko egitasmoaren baitan. Herrialde

ezberdinetako artisten artean zubiak eraikitzea, elkarlana, harremana sustatzea zen ekimenaren helburua. Soberonek azaldu bezala, sei arte galeria elkartzen dira urtero udako jaialdi hau antolatzeko hirian eta udalaren babesa dute beste eragile batzuen artean.

Lana astigar hazi bat da eta bidaiaren ideia osatzen duela aipatzen du Soberonek. "Hazi hau hegalaria da, hegan doa leku bat bilatzen sustraiak botatzeko, bidaiaria egin eta han lur hartzen duena".

#### Laguntasunaren ikur

Soberonek azaldu bezala,

Donostia eta Wiesbaden hirien arteko laguntasunaren sinbolo bezala geratu da bere lana han.

Honen kokapena hiriko ordezkarietz gain, arte galerien ordezkarietz ere babestu dute. Bi kulturen arteko lotura eta erreferente bilakatu dute.

Herriko artistak hazi hegaliaren mugimendua ezaugarritu nahi izan zuen lanean eta Wiesbadenetik azaldu dutenez, "hazi hegaliak leku ezin aproposagoa aurkitu du betirako bertan geratu eta sustraiak bota ditzan".

Aipatu behar da, eskultura hau eskuratzeko hainbat ekimen egin direla hirian, besteak beste eskultura beraren irudi txikiak saldu dira azokan dirua lortzeko Rita Thies-en ekimenez.

Pilar Soberon oso pozik dago bere lanak izan duen harrerarekin eta han izan zen bertatik bertara bere eskulturren kokapen berria zein den ezagutzen.



Pilar Soberon "Aeolia's Park" eskulturren kokapenean Wiesbadenen.

## Alaia abesbatza igandean komentuan

Alaia ONCE erakundeak kontzertua eskainiko du igandean 11:00etan Brigitarren komentuan.

Alaia Abesbatza Donostian 1991an sortu zen ONCE-ri lotuta Araceli Agudo Sanchoren zuzendaritzapean.

Hasieratik abesbatzak hainbat batutari so egiteaz gain bai estatuko zein nazioarte mailako makina bat agertokitan aritu da, aipagarriak izanik Vianan edota Vaticanoko San Pedron eskainitako emanal-

diak besteak beste. Berrogei bat ahotsek osatzen dute abesbatza, erdiak ONCE-ko bazkideak direlarik eta urritasun bisuala duten kideak izanik. Kide gehienek urteak daramatzate abesbatzan eta horrek oholtzagainean badu eraginik.

Landutako erreperitorioari dagokionez, zabala dela esan daiteke, estilo, estetika eta garai desberdinetakoa, espiritual amerikarrak, pieza afrikarrak, euskal folkloreak, habanerak edota lan klasikoak dira abesten dituztenak.

Egun Letoniakoa den Vineta Iglesiasek zuzentzen du abesbatza, eta bere lanari esker erreperitorioa zabalteaz gain obra letoniarrak ere eskaintzen ditu abesbatzak. Aipatu behar da zuzendari lanak egin dituela abesbatza ezberdinetan bai atzerrian baita gurean ere.

Igandeko kontzertuan euren dohaiak erakutsiko dituzte denetariko piezak izango dituen emanaldian. Honetarako sarrera doan izango da beraz sustatzailerik dei egiten diete herritarrei bertaratzea.



Alaia abesbatzarren kontzertua igandean 11:00etan.



**BITRO ET INDUZIOKO  
PLAKEN  
ERAKUSKETA  
HAUNDITU DUGU**

**MAHAI-TRESNERIA  
OPARI PLAKA  
BAT EROSTEA**



**Bideo = TIEN 21 =  
Lagunak**

Etxekotresna elektrikoak

**MAIATZEAN BAKARRIK**

**12 ORDAINDU  
HILABETETAN  
INTERESIK GABE**

TIN: 0% TAE: 0%

Donostia etorbidea 2 · Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34 | [www.bideolagunak.com](http://www.bideolagunak.com) | [facebook.com/BideoLagunakTien21](https://facebook.com/BideoLagunakTien21)

